

LANDAREAK LURRAREN OPARI: EKI 1. GAIA (1. ZATIA)

1. Nola deitzen da unibertsoa sortu zuen eztanda? Aukeratu erantzun egokia.

Biq-Bang

Boom

Eztanda erraldoia

2. Osatu testua falta diren hitzekin.



Teoria asko daude baina zabalduena, _____ edo Big - Bang-arena da.

Big-Bangaren teoriaren arabera, unibertsoko _____ guztia gune bakar batean _____ zegoen, baina duela _____ urte inguru eztanda egin zuen eta unibertsoan zehar _____ zen materia.

Sakabanatutako materia horretatik sortu ziren gero, _____, izarrak eta planeta - sistemak.

galaxiak bilduta zabaldu 15 mila milioi Eztanda Handia materia

3. Lotu hitz bakoitza bere definizioarekin:

- Unibertsoa • Zeruko berezko gorputzak dira: planetak, izarrak, sateliteak...
- Astroak • Eguzkiaren inguruan sortutako sistema. Planetez eta beste gorputz espazialez osatua.
- Izarrak • Planeta baten inguruan biraka dauden astroak dira. Naturalak edo artifizialak izan daitezke.
- Planetak • Izar baten inguruan biraka dauden astroak dira.
- Sateliteak Berezko argia duten astroak dira. Argia eta beroa ematen dute.
- Eguzki-sistema • Astro guztien multzoa eta multzo horrek betetzen duen espazioa.



4. Adierazi hurrengo esaldiak egia edo gezurra diren.



- a. Lur planetan bizi gara.
- b. Eguzkia lurraren satelitea da.
- c. Eguzkiak argia eta beroa ematen digu.
- d. Ilargia lurraren satelitea da.
- e. Ilargia distiratsua da, berezko argia duelako.
- f. Ilargiak ez du berezko argirik, eguzkiaren argia islatzen du.
- g. Eguzkia da, eguzki sistemaren erdigunean dagoen izarra.

5. Zergatik da bizitza posible Lur planetan? Ordenatu hitzak esaldiak osatzeko.

egotea

kokapenari

ura

Eguzkiarekiko

egoera

esker,

likidoan

posible

da.

1.

atmosfera

ugariko


dugulako.

Oxigeno


2.

--	--	--	--

6. Osatu Lurraren mugimenduen inguruko eskema:



7. Aukeratu Eguzki sistemako elementu bakoitzaren izena:



8. Erantzun eta osatu sateliteen inguruko hurrengo galderak:

- Zeren inguruan dabilta biraka? _____
- Berezko argirik al dute? _____
- Lur planetaren satelitea nola deitzen da? _____
- Izendatu ilargiaren faseak:



9. Bete hutsuneak:

- Gu bizi garen galaxiaren izena _____ da.
- Bi satelite mota daude: _____ eta naturalak.
- Lurak bere orbitan 4 egun garrantzitsu ditu: 2 _____ eta 2 ekinozio.
- Eguzkia etengabe argia eta _____ ematen duen esfera erraldoia da.

beroa

Esne Bidea

solstizio

artifizialak